

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA
2022ko MAIATZAREN 30eko EZOHIKO BILKURAREN AKTA**

Bertaratuak:

Beatriz Artolazabal andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Kontseiluko presidentea.

Josu Urrutia jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Asier Aranburu jauna, kanpo-ekintzaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.
Bertaratu da halaber Mikel Hidalgo jauna, hitzarekin baina botorik gabe.

Nerea Urien Azpitarte andrea, osasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.
Bertaratu da halaber Miguel Sánchez jauna, hitzarekin baina botorik gabe.

Antonio Castejón jauna, ingurumen-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz, hitzarekin eta botorik gabe.

Leixuri Arrizabalaga andrea, Giza Eskubideen, Berdintasunen eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ernesto Sainz jauna, Eudel ordezkatzuz.

Juanma Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Milagros Domínguez andrea, Iñigo Eguren jauna, Mónica González andrea, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, Jesus Ochoa jauna eta Irene Molero andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Elsa Fuente andrea, Igone Revilla andrea, Marta Macho andrea, Carlos Ascunze jauna eta Alberto Cereijo jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin eta botorik gabe.

Gainera, presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira:

Ana Telleria andrea, eLankidetzaren koordinazio estrategikoko zerbitzuko kidea, Kontseiluko idazkaritzarako laguntza tekniko gisa.

Ana Rojo andrea, eLankidetzaren Zerbitzu Juridikoko kidea.

Maite Garmendia andrea, eLankidetzaren koordinazio estrategikoko zerbitzuko kidea, gai-zerrendako lehenengo punturako.

Ainara Arrieta andrea, eLankidetzaren koordinazio estrategikoko zerbitzuko kidea, gai-zerrendako bigarren punturako.

Koldo Unceta jauna eta Clara Murguialday andrea, aditu gisa, gai-zerrendako bigarren puntua aurkezteko.

Ezin bertaratu izana adierazi dute:

Marian Olabarrieta andrea, gizarte-politiken arloko sail eskuduna ordezkatzuz.

Hernando Lacalle jauna, ogasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Jone Miren Fernández andrea, nekazaritza-alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Begoña Pedrosa andrea, hezkuntza-arloko sail eskuduna ordezkatzuz.

Olga García andrea eta Martín Iriberry jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundea.

Gorka Urrutia jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Lekua: eLankidetzako egoitza, formatu presentzian eta on line.

Eguna eta ordua: 2022ko maiatzaren 30a, 12:30

Presidenteak 12:35ean eman dio hasiera bilkurari agurrarekin, ongi etorria egin dio Marta Macho UPV-EHUko ordezkari berriari, eta aurkezpen-txandaren ondoren, bilkuraren gai-zerrenda irakurri du:

1. IV. Gida Planaren ebaluazioari eta luzapenari buruzko nahitaezko txostena onartzea.
2. Lankidetzari eta elkartasunari buruzko lege-aurreproiektuaren aurkezpena.
3. Bestelakoak eta galde-eskeak.

1. IV. Gida Planaren ebaluazioari eta luzapenari buruzko nahitaezko txostena onartzea.

Presidenteak gogorarazi duenez, maiatzaren 3ko bilkuran IV. Gida Planaren ebaluazioari eta luzapenari buruzko proposamena aurkeztu zuen eLankidetzako lantaldeak eta, 158/2008 Dekretuaren 2.c) artikulua arabera, Kontseiluak proposamen horri buruzko alde zuzeneko nahitaezko txosten bat eman behar du. Jarraian, Iñaki Oruberi eman dio hitza, eta Batzorde Iraunkorrek landutako txosten-proposamena aurkeztu du azken horrek.



INFORME
PRECEPTIVO PRÓRR

Beatriz Artolazabalek egindako lana eskertu egin dio txostena landu duen taldeari, eta galderen eta komentarioen txanda ireki du. Komentarioren ez dagoenez, nahitaezko txostena bozkatu da, eta ezohiko bilkurara bertaratutako boto-eskubidea duten pertsonen aho batez onartu dute.

2. Lankidetzari eta elkartasunari buruzko lege-aurreproiektuaren aurkezpena.

Presidenteak adierazi duenez, maiatzaren 10ean onartu zen alde zuzenetik lankidetzari eta elkartasunari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua, dagokion aginduaren bidez. Adierazi du puntu honetan Koldo Unceta eta Clara Murguialday gonbidatu dituela etortzera, lege-aurreproiektua lantzeko prozesuan parte hartu duten aditu gisa. Eta eLankidetzako zuzendari Paul Ortigari eman dio hitza, zeinak aurreproiektuaren ildo nagusiak azaldu dituen.



cast_anteproyecto
ley cooperacion.pdf

Beatriz Artolazabalek eskertu egin dio Pauli bere azalpena eta eztabaidarako tarte bat zabaldu du.

Carlos Askunzek elaborazio-prozesuan REAS kontuan hartu izana eskertu du, eta finantzaketari eta ekonomia solidarioari buruzko elementuak sartu izana. Lege berriaren alderdi positiboak nabarmendu ditu: ulergarriagoa da, aplikazio-esparru bat eta begirada zabalago bat proposatzen ditu, eta nolabaiteko malgutasuna sartzeko prozedura burokratikoagoetan ekimenean egikaritzapenari dagokionez. Legebiltzarrean egin beharreko bost urtez behingo eztabaida-proposamena ere balioan jarri du, lankidetzaren gune propioak gaituz.

Era berean, lau elementu azaldu ditu, horiei buruzko nolabaiteko atsekabea adieraziz. Alde batetik, zalantzan jartzen du zenbait kontzepturen –hala nola garapenaren, justiziaren edo bizikidetzaren globalaren– zentralitatea gaurkotatzearen beste kontzeptu espezifikoago batzuen aurrean, esaterako trantsizio ekosozialak edo gune demokratikoen galera, legearen testuan egonik ere ez baitira hain irmo agertzen.

Bigarrenik, eraldaketa ekonomikoaren premiari buruz egiten den aipamen eskasa adierazi du, eraldaketa hori bere ustez funtsezkoa delarik legeak jorratu nahi dituen arazoei erantzuteko.

Hirugarrenik, uste du hezkuntzari ez zaiola behar beste garrantzirik ematen gizarte-erlaketarako gure gizarteko praktika eta balioak eraldatzeko premiaren aurrean.

Azkenik, adierazi du aurrerapauso bat izan dela bigarren kapituluaren arkitektura instituzionalari eta administrazio publikoen funtzioei dagokienez, baina absentsia nabarmena dago gainerako agentei dagokienez, eta lankidetzaren publiko horren zatirik handiena agente horiek egikaritu behar dute, hain zuzen ere.

Asier Aranbarrik komentatu du Lehendakariak bere gain hartzen duela garapenerako politiken koherentzia bultzatzeko rola 2030 Agendaren esparruan, baina lankidetzaren laguntza beharko dute beste sail batzuei aholku emateko eta gobernu-erlari dagokionez garapenerako politiken koherentzia artikulatzeko garaian. Eta lantaldearen laguntza eskatu du bide hori elkarrekin egiten hasteko.

Josu Urrutiak legearen elementu positibo gisa nabarmendu ditu honako hauek: erantzukidetasuna eta kontestualizazioa, ikuspegiaren aniztasuna, % 0,7aren konpromisoa artikuluetan, garapenerako politiken koherentzia eta Lehendakariak ere erantzukizun horretan sartzeko, eta parte-hartze gune eta gardentasun-guneak sendotzea.

Haatik, zalantzak eragiten dituzten hiru elementu adierazi ditu. Lehenik, albatu agente gehien sartzeko borondatearen eta 1. artikulua euskal administrazio publikoak soilik aipatzeko arteko koherentziarik eza adierazi du.

Bigarrenik, bere desadostasuna adierazi du 19.2 artikulua estatuko errenta gordinaren eta estatuko administrazio guztien erreferentzia egitearekin, erreferentzia gisa Euskadi hartu beharrean.

Hirugarrenik, adierazi du politikaren egikaritzapenean GGKEek duten rol esanguratsua artikuluan islatu ikustea gustatuko litzaiekeela. Zioen azalpenean soilik aipatzen dira aurreproiektuan, iraganari begira, baina etorkizunaz hitz egiten denean desagertu egiten dira.

Azkenik, Koordinakundetik eskua luzatu du azken puntu horri zein 18. artikuluan planteatutako tresnak malgutzeko proposamenari ekiteko.

Presidenteak mintzaldi guztiak eskertu ditu eta gobernuak testua albait gehien adosteko duen borondatea berretsi du, kontuan izanda akordio zabal batek denboran irauteko eta politikari soluzio egonkorragoak emateko aukera gehiago dituela.

Era berean, gogorarazi du entzunaldi publikoa egiteko aldia uztailaren 22ra arte irekita dagoela eta Kontseiluko idazkariari eman dio hitza nahitaezko txostena lantzeko prozesua azaldu dezan, hurrengo osoko bilkuran emango baita txostena. Gainera, jakinarazi duenez, agenda-arrazoiak tarteko, bigarren osoko bilkurarako iragarritako data aldatu behar izan da. Azkenik, uztailaren 18an egingo da 12:30ean, eragozpenik ez badago.

Noemí de la Fuentek gogorarazi duenez, 2021eko ekainaren 29ko bilkuran onartutakoari jarraikiz, arauaren organo sustatzaileak parte hartu gabe eta beren borondatez parte hartu nahiko duten Kontseiluko kide diren beste pertsona batzuekin batera, batzorde iraunkorrak nahitaezko txosten bat egiteko proposamena landuko du, eta hurrengo ohiko bilkuran aurkeztu eta onartua izateko aztertuko da. Eta talde misto bat eratzera animatu du, Kontseiluaren osaera kontuan izanda (publiko-soziala).

Gainera, ekarpenak bidaltzeko epea ekainaren 20ra arte izatea proposatu du, betiere txostena lantzeko epe nahikoa izateko, Kontseiluko kideekin txostena beranduez uztailaren 14an partekatu ahal izateko.

Adierazi duenez, konplexua izango da, sentsibilitate bat baino gehiago bildu beharko baita. Horregatik, adostasuna eragiten duten alderdiak soilik biltzea gomendatzen du, eta bestelako ekarpenak uztailaren 22ra arte irekita egongo den entzunaldi publikoko mekanismoaren bidez bidaltzea. Adierazi du ez lukeela zentzurik izango nahitaezko txostena iritzien batura bat izatea. Gehitu duenez, balioespen positibokoak zein hobekuntzakoak edo aldaketakoak izan daitezke ekarpenak.

Testuaren eskemari dagokionez honako hau iradoki du: (i) aztertu beharreko helburuari buruzko sarrera; (ii) kontsiderazio orokorrak; (iii) testuaren azterketa artikuluz artikulua (zioen azalpena eta xedapen gehigarriak barne); (iv) esanguratsutzat hartzen diren beste elementu batzuk.

Iñaki Orubek txostenarekin gero zer egiten den galdetu du. Ana Rojok azaldu duenez organo sustatzaileak gomendioak aztertu behar ditu, egokitzat jotzen direnak barnean hartu eta kontuan hartzen ez direnak memoria laburrean justifikatu. Informazio guztia Legesarean eskuragarri egongo dela jakinarazi du Noemí de la Fuentek.

3. Bestelakoak eta galde-eskeak.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, presidenteak gogorarazi du hurrengo ohiko bilkura uztailaren 18an egingo dela 12:30ean modu presentzialean eLankidetzaren egoitzan eta bilera amaitutzat eman da 14:02an.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN EUSKAL
KONTSEILUKO IDAZKARIA**

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN EUSKAL
KONTSEILUKO PRESIDENTEA**